

# **Iraultzailea**



**Miguel Artsibashev**

Gabriel Andersen, maisua, eskolako lorategi ertzeraino ibili zen, non gelditu baitzen, zer egin erabaki ezinik. Han urrunean, bi miliara edo, basoak airetik zintzilik zeudela ematen zuen, orbanik gabeko elurrezko zelai baten gaineko parpaila urdinkara baten gisa. Egun dirdiratsua zen. Lur-eremu zurian eta lorategiko burdin-hesiko piketan hamaika koloregairen distira zegoen. Airean bazegoen halako arintasun eta gardentasun bat, udaberri hasierako egunek soilik daukatena. Gabriel Andersonek bere urratsak bideratu zituen parpaila urdinkaradun inguruki alderantz, basoetan zehar osteratxo bat egiteko asmoz.

«Udaberri bat gehiago nire bizitzan», esan zuen sakon arnastuz eta bere betaurrekoen zehar zerura begiraturaz. Andersenek jaidura sentimental eta poetikorako joera nabarmena zuen, eskuak atzean elkar gurutzaturik zeuzkala ibiltzen zen, makila haietatik zintzilik zeramala.

Ozta-ozta emanak zituen urrats batzuk, noiz-eta soldadu- eta zaldi-talde bat ikusi baitzuen lorategiz harantzagoko bidean. Haien uniforme

arreak ilunkiro nabarmentzen ziren lurraren hondo zuriaren gainean, baina haien bizkarraldeek eta zaldien ilajeak argia islatzen zuten. Haien zaldizko-hanka kakotuak elurretan trakets mugitzen ziren. Andersenek bere buruari galde egiten zion zertan ari ziren han. Bat-batean, senak –zentzumenak baino gehiago– haien helburuaren nondik-norakoa ulertarazi zion. Zerbait ikaragarri eta ezohikoa gertatzera zihoan. Eta senak berak esan zion soldaduengandik ezkutatzeko. Azkar-azkar hartu zuen ezkerreantz, belauniko erori zen eta urtzen hasitako izotzak arrakalaturiko elur bigunaren gainetik ibili zen arrastaka, garaiera gutxiko belarmeta bateraino zeinaren ostean, lepoa luzaturik, soldaduek zertan ziharduten ikus baitzezakeen.

Dozena bat ziren: haietako bat ofizial gazte potolo bat zen, zilarrezko belarri batez gerriari dotoreziaz egokituriko longain gris bat janzten zuena. Haren aurpegia hain gorri zegoen, ezen, urrun egon arren, Andersenek haren bibote arinki irtenaren eta haren bekainen dirdira zurikara bitxia ikusi ahal izan baitzuen haren larru-azal biziki gorriaren hondo gainean. Haren ahots erlatsaren tonu hautsiak argi eta garbi iristen ziren maisua, adi-adi entzuten, posizio horizontalean ezkutatuta zegoen lekuraino.

–Bazekiat zertan nabilen. Ez diat inoren aholkurik behar –oihu egin zuen ofizialak. Besoak gerrian jarri zituen eta soldadu artegen taldean

zegoen norbaiti begiratu zion-. Nik irakatsiko diat erbeldea izaten, azeri alu horri!

Andersen enen bihotzak taupak bizkortu zituen. «Ene Jainkoa! –pentsatu zuen-, posible ote da?» –Eta bere burua olatu-kolpe hotz batek jota sumatu zuen.

–Ofiziala –ahots bare, neurritsu baina argi bat sortu zen soldaduen artetik-, zuk ez duzu eskubiderik; epaitegi militarri dagokio erabakitzea; zu ez zara epailea; hau erailketa bat izango litzateke, ez.

–Zaude isilik! –orro egin zuen ofizialak, amorru ito baten txilioaz-. Gerra-kontseiluaren pean ezarriko zaitut. Ivanov, aurrera!

Zaldia ezproiez jo eta alboratu egin zen. Gabriel Anderson ek mekanikoki ikusi zuen haren zaldiak zelako arretaz aukeratzen zuen bere bidea, bere apatxak delikatuki jarriz, minuet-urratsak izango balira bezala; haren belarriak zut zeuden soinu oro entzutearren. Une bateko zalaparta eta asaldura izan ziren soldaduen artean. Gero sakabanatu egin ziren zein bere bidean, beraien atzetik beltzez jantzitako hiru irudi utzita: bi gizon garai eta irudi txikitxo eta hauskor bat. Andersen ek azken honen biloa ikus zezakeen. Oso-osu horaila zen. Haren belarriak ere gorrixkak ziren.

Orain argi eta garbi ulertzen zuen zer gertatzera zihoan. Baina hain ezohikoa, hain ikaragarria zen, ametsetan zegoela irudikatu baitzuen.

«Dena zegok horren distiratsu, horren ederra duk: elurra, zelaia, basoak, zerua. Udaberriaren hatsa noranahi heltzen duk. Hala eta guztiz ere, pertsona horiek hil egin behar ditzitek. Nolatan izan daiteke? Ezin duk!» Horrelakoak ziren nahaspilan zirimolatzan zitzaizkion pentsamenduak. Bat-batean erotu eta ohituta ez dagoen eta entzun, ikusi eta sentitu ere beharko ez lituzkeen gauzak ikusi, entzun eta sentitzen dituela ohartzten den gizonaren pare sentitzen zen.

Beltzez jantzitako hiru gizonak zutik zeuden burdin-hesiaren ondoan, haietako bi elkarri itsatsita ia, eta garaiera txikikoa tarte batera.

–Ofiziala! –oihu egin zuen haietako batek ahots etsituz–. Jainkoak ikusten gaitu! Ofiziala!

Zortzi soldadu bizkor-bizkor jaitsi ziren zaldietatik; haien ezproiek eta haien sableek estropezu egin zuten elkarrekin, baldarkeriaz. Presaka zebiltzan dudarik gabe, lapur-afereetan jardungo balute bezala.

Hainbat segundoz igaro ziren isilik, soldaduak beltz-koloreko irudiengandik urrats gutxira paratu eta euren fusilak apuntatzen zituzten

bitartean. Hori egitean, soldaduetako bati txanoa erori zitzaion. Jaso eta berriro jantzi zuen elur hezea astindu gabe.

Ofizialaren zaldiak aitzur-jauziak egiten jarraitzen zuen toki berean, belarriak zut zituela, beste zaldiek –hauek ere belarriak soinu oro entzuteko adi– geldi zirauten bitartean beltzez jantzitako gizonengana begira, euren burutzar luze eta zuhurrak albo baterantz makurturik.

–Barka ezazu mutikoa, behintzat! –zulatu zuen airea beste ahots batek ustekabea. Zergatik hil haur bat? Arraioa! Zer egin du haurrak?

–Ivanov, egizu agindu dizudana –orro egin zuen ofizialak, beste ahotsa itoaraziz. Haren aurpegia flanela gorrizko puska bat bezain gorrimina zegoen.

Eta eszena basati eta higuigarri bat gertatu zen, lazgarriaren lazgarritz. Beltzez jantzitako irudi txikitxoak, ile horail eta belarri gorrixkekikoak, haur moduko ulu bat jaurti eta ihes egiten saiatu zen alde baterantz. Berehala atzeman zituzten bizpahiru soldaduek. Baina mutikoa indar egin zien eta beste bi soldaduk heldu zioten.

–Ow-ow-ow-ow! –oihu egiten zuen mutikoak. Aska nazazue! Aska nazazue! Ow-ow!

Haren ahots sarkorrek sastakatua izan den, hil-hurren dagoen txakur baten txilioaren antzera urratu zuen airea. Bat-batean isildu egin zen. Norbaitek jo omen zuen. Eta ustekabeko isiltasun itogarri bat sortu zen. Mutikoa aurrerantz bultzatua izan zen. Gero, desarra izugarri zaratatsu bat. Andersen bere baitan kukubilkatu zen, dardarka. Argi eta garbi ikusi zuen, baina amets baten lausotasunez, bi gorputz ilun nola erortzen ziren, txinpart zurbilekiko tximista bat eta ke-adar mehe bat egurats argi eta distiratsuan gora egiten. Soldaduak ikusi zituen euren zaldietara korrika eta presaka igotzen gorpuei begiratu ere egin gabe. Lokazaturiko bidean zehar lauhazkatzen ikusi zituen, euren armei karranka ateratzen zitzaizela, haien zaldien apatxek batera durundi egiten zutela.

Hau guztiau ikusi zuen, orain bidearen erdian zutik, jakin gabe ez noiz ez zergatik aterea zen belar-metaren osteko bere ezkutalekutik. Heriozko zurbiltasuna zeukan; aurpegia izerdi itsaskor batez estalita, haren gorputza dar-dar batean. Tristezia ukigarri batek aztoratu eta oinazeztatzen zuen. Sentsazio hura ulertzerik ez zeukan. Bazen muturreko ondoez bat bezalako zerbait, nazkagarriago eta izugarriagoa baina.

Bideko bihurguneaz harantzagoko basoetarantz soldaduak desagertu ondoren, fusilamendua jazotako lekura jendea bazetorren presaka, nahiz eta une hartara arte arimarik ikusi ez.

Gorpuak burdin-hesiaren bestaldeko arekan zeutzan, non elurra garbi, hauskor eta orbanik gabe, distiratsu eta alai baitzegoen eguratsean. Hiru hildako zeuden: bi gizon eta mutiko bat. Mutikoa lurrean etzanda zegoen, bere lepo luze eta bigunarekin, elur gainean. Haurrarendandik hurbilago zegoen gizonaren begitartea ikusezina zen. Buruz behera eroria zen odol-putzu batean. Hirugarrena bizar beltzarekiko eta beso ikaragarri handi eta gihartsuekiko gizon-puska bat zen. Bere gorputza izana zen bezain luze eta zabal zetzan, besoak odolez zikinduriko elur-eremu zabal baterantz luzatuak.

Hiru fusilatuak irudi beltz eta mugiezinen antzera ikusten ziren elurrezko hondo zuri hartan. Urrutitik inork ezin izango zukeen haien gelditasunaren ikara hauteman, hantxe eroriak bide estuaren bazterrean, orain jendez betetako hartan.

Gau hartan Gabriel Andersenek, etxe-eskolako bere gelatxoan, ez zuen olerkirik idatzi egin ohi zuen bezala. Leihoan geldi iraun zuen ilargiaren biribil urrun eta zurbilari begira ortzi lanbrotsu eta urdin ilunean, pentsakor. Eta haren gogoetak nahaspilatsu eta astunak ziren, hodei bat bere garun gainean pausatu izan balitz bezala.

Ilargiaren pean lausoki nabarmenduta, burdin-hesiaren, zuhaitzen, baratze hutsaren itzal goibela ikusten zuen. Hiru fusilatuak berari deika



irudikatzen zituen; bi zegoeneko helduak; bestea, artean haur bat. Orain bide-bazterrean zeutzan, landa mortuan eta isilean, argi hotz eta urrunera begira euren hildako-begi zuriekin, berak bizirikako bere begiekin begiratzen zuen bezala.

«Eguna iritsiko duk», egiten zuen gogoeta, «non ezinezkoa izango baita lagun batzuek beste lagun batzuk erailtzea. Eguna iritsiko duk non gizon hauek hil dituzten soldaduek eta ofizialek eurek ere ulertuko baitute zer egin duten eta hiltzeko erabili dituzten arrazoiak hil dituztenentzat bezain beharrezko, garrantzitsu eta kuttunak izango baitira eurentzat –ofizial eta soldaduentzat– ere.»

–Bai –esan zuen hotsandiz, begiak bustita–. Egun hori helduko duk. Ulertu egingo ditek. –Eta bere begietako malkoek ilargiaren biribil zurbila ezabatu zuten.

Hiru biktimekiko gupida handi batek estutzen zuen; biktima haiek, zeinen begiek ilargirantz begiratzen zuten tristeki eta ikusi gabe. Sumindura-sentsazio bat hartaz jabetzen zen sastakai zorrotz batek egindako zauri baten moduan.

Baina Gabriel Andersenek bere bihotza baretu zuen hitz batzuk ahopean esaten: –Ez zekitek zertan ari diren–. Eta esaldi zahar eta behin eta berriz erabili honek kemena eman zion bere amorrua itoarazi eta bere sumina menderatzeko.

---

Egun zuri eta garden bat zen, baina udaberria ordurako nahiko aurreratuta zegoen. Lurzoru bustiak eraberritze-usaina zuen. Urtzen hasitako elur soltearen azpitik ura nonahitik zerion, hotz eta garden. Zuhaitzen adarrak bigun eta malgu agertzen ziren. Kilometro askoko ingurumarian, landak zati urdinkara argietan hedatzen ziren.

Baina herrixkan inork ez zuen udaberriko egunaren argitasun alaian parte hartzen. Hori herrixkatik kanpo zen, non ez baitzegoen jenderik: landa, baso eta mendietan. Herrixkan airea igogarri, astun eta izugarria zen, amesgaizto batean bezala.

Gabriel Andersen bidean zutik zegoen bizilagun-talde goibel, arretagabe batetik hurbil, eta lepoa luzatu egiten zuen zazpi nekazari zigorkatzeko prestamenak ikusi nahirik.

Urtze-bidean zen elurraren gainean zutik zeuden, eta Gabriel Anderseni kosta egiten zitzaion onartzea haiek aspalditik ezagutzen zituen eta preziatzen zituen bizilagunak zirela. Une batetik bestera gertatu behar zitzaièn, jazotzera zihoàn gauza lotsagarri, izugarri eta ezabaezin harengatik mundutik bereizita zeuden eta ezin zuten sentitu berak, Gabriel Andersenek, sentitzen zuena; hala

nola hura bera ezgauza baitzen haiek sentitzen zutena sentitzeko. Zurezkoak bailiran, geldiro, hari mesprezuz-edo begiratu, euren buruak ezker-eskuin mugitzen zituztèn eta berriz ere buru tantodun eta sendoak bueltatu egiten zituztèn zaldi arin-garaietara konfiantzaz eta ederkiro igotako soldaduak zeuden haien inguruan. Gabriel Andersenek, zeina laster izango baitzen izugarrikeria, zoritxar honen lekuko, ez zen ausartuko hura galarazteko ezer egitera; eta lotsaizun hotz eta eramangaitz baten sentsazioak berataz jabetu zen, jelazko kurrika batzuek helduko baliote bezala, zeinen bitartez dena ikus baitzezakeen mugitu eta oihu egin ahal izan gabe, ezta intziri bat bota ahal izan gabe ere.

Lehen nekazaria eraman zuten. Gabriel Andersenek haren aurpegiera ikusi zuen, arrenka, ezindurik. Haren ezpainak mugitu egin ziren, baina ez zen soinurik bat ere entzun. Haren begiek begirada lauso, galdua zuten baina haietan bazen dirdira ñirñirkari bat, ero baten begietan bezala. Haren gogoak, bistan zen, jada ez zuen gertatzen ari zena ulertzen.

Eta hain ikaragarria zen begitarte hura, aldi berean arrazoimenez eta eromenez beteta, ezen Andersenek lasaitu ederra hartu baitzuen hura elurrean buruz behera jarri zutenean, eta haren begien basapiztia-dirdiraren orde, orain haren bizkarralde biluzi, distiratsua ikusten zuen: ikuspen lazgarri, lotsagarri, zentzugabe bat.

Soldadu handikote, aurpegi-gorri eta txano gorriarekiko hark nekazariarengana egin zuen aurrera, haren gorputzari ageriko gozamenaz behatu eta gero ahots garbiz hots egin zuen:

–Ongi, aurrera, Jainkoaren bedeinkazioarekin!

Bazirudien Andersonek ez soldaduak ez zerua ez zaldiak ez jendetza ikusten zituela. Ez zuen ez hotzik ez ikararik ez lotsarik sentitzen. Ez zuen zartailuaren klaskarik airean entzun, ezta minezko eta etsipenezko oihu basatirik ere. Puzten eta aldi berean zerrenda zuri-gorritz betetzen zihoan gizon baten bizkar biluzia baino ez zuen ikusi. Odola zerion, bai eta turrustan erion ere, urtutako elur zurira erortzen ziren odolezko orban, tantatza eta putzuak sorraraziz.

Ikara handi bat jabetu zen Gabriel Andersenen arimaz, irudikatu zuenean gizon hura berriro jaikitzen eta bere gorputza egurats zabalean biluzik eta ore odoleztatu bihurtuta ikusia zeukan jende guzti hari begietara begiratzen. Begiak itxi zituen. Berriro ireki zituenean, euren uniforme eta euren txanoekin jantzitako beste lau soldadu ikusi zituen bizkarra biluzik zeukan beste gizon bat elur gainean etzatera behartzen: ikuspen lotsagarri, ikaragarri eta zentzugabeki tragiko eta barreagarria aldi berean.

Izerdi itsaskor batek estaltzen zion gorputza. Lotsa-sentsazio batek dar-dar batean jartzen zion haren izatea. Sentipen umiliagarria zen itxaron beharra inoren arreta erakarri gabe atzeman ez zezaten eta hantxe elur gainean bota eta biluz ez zezaten... bera, Gabriel Andersen.

Soldaduek bultza egin eta pilatu egiten ziren; zaldiek euren buruak mugitzen zituzten, zartailuak airean egiten zuen zart, eta giza haragia biluzik, lotsagarri, puztu egiten zen, urratu egiten zen, odolez estaltzen zen eta suge baten gisa biribilkatzen zen. Herrixkan biraoak, aieneak, alarau basatiak entzuten ziren, udaberriko egun hartako aire garbi eta zuriak garraiatuak.

Andersenek bost gizonen begitarteak ikusi zituen udaletxeko harmailadian, euren lotsa jada sufritua zuten haien begitarteak. Begiak azkar-azkar kendu zituen haiengandik. Hura ikusi eta gero, gizon batek bere heriotzaz beste ezin zuela ezer espero pentsatu zuen.

---

Hamazazpi ziren: hamabost soldadu, teniente bat eta ofizial gazte bizargabe bat. Ofiziala su aurrean zegoen etzanda, sugarrei adi-adi beha. Soldaduak armak lardaskatzen ari ziren orga estalian. Haien irudi grisak isilka-misilka mugitzen

ziren urtzen hasitako lur beltzean eta noizean behin estropezu egiten zuten su-egurki irtenekin.

Gabriel Andersen, bere soingainekoarekin eta bizkarrean zeraman bere makilarekin, haiengana hurbildu zen. Tenientea, gizon bibotedun bat, zutik jarri, sutatik aldendu eta so egin zion.

–Nor zara zu? Zer nahi duzu? –galdetu zuen asalduz. Heriotza, suntsipena eta oinazea barreiatzen zituzten barruti hartan soldaduak guztien beldur zirela argi eta garbi zegoen, haren ahotsaren tonua zela eta.

–Ofiziala –esan zuen–, hemen gizon ezezagun bat dago.

Ofizialak Anderseni begiratu zion ezer esan gabe.

–Ofiziala –esan zuen Andersenek, ahotszolz, atezuan–, Michelson dut izena. Merkataria naiz eta herrixkara noa negozio-bidaldian. Beldur nintzen nahastu eta horietakotzat joko ote ninduzuen, badakizu...

–Orduan, zeren bila zabilta hemen? –esan zuen ofizialak haserre, eta urrundu egin zen.

–Merkataria! –esan zuen burlaizez soldadu batek–. Arakatu beharko genuke, merkatoriengan ez baita oso ohikoa gauez kuxkuxean ibiltzea.

Masailezurrean muturreko on bat behar du honek, horra zer behar duen.

–Txo hau susmagarria da, ofiziala –esan zuen tenienteak–. Ez al duzu uste hobe izango zela atxilotzea? Zer deritzozu?

–Ez –erantzun zuen ofizialak nagi–. Asperasper eginda nago malapartatu hauetaz.

Gabriel Anderson hantxe geldi zegoen tutik esan gabe. Haren begiek modu bitxi batez egin zuten dirdira iluntasunean, sua beraietan ispilatuz. Eta arraroa zen haren giza irudi txikitxo, lodi, garbia landan ikustea, gauez, soldaduen artean, bere soingainekoarekin, bere makilarekin eta sutearen argitan dizdiz egiten zuten bere betaurrekoekin.

Soldaduek bakean utzi zuten eta alde egin zuten. Gabriel Anderson une batez geldi geratu zen. Gero, bueltatu eta abiatu egin zen, iluntasunean galdu arte.

Gaua amaitzeko gutxi falta zen. Airean hotzago egin zen eta sasitzen ertzak argixeago nabarmentzen hasi ziren ilunpean. Gabriel Andersenek berriro jo zuen postu militarra. Baina oraingoan ezkutatu egin zen, lau hankan ibiliz eta sasiartetik aurrera eginez. Haren atzean, jendea isilik eta kontu handiz mugitzen zen, sastraka kontu handiz tolestuz, isilgordean, itzalen pare. Gabrielen

ondoan, haren eskuinean, gizon garai bat zihoan, errebolber bat eskuan.

Soldadu baten giza irudia modu bitxi batez nabarmendu zen muinoan, ustekabean, haiek espero ez zuten lekuan. Ia itzalitako suaren dirdaiak ahulki argizatuta zegoen. Gabriel Andersonek soldadua ezagutu zuen. Bera araka zezaten proposatu zuen berbera zen. Bere bihotzean ezerk ez zuen zirgit egin. Haren begitartea hotzik eta geldi zegoen, lokaturiko gizon baten antzera. Suaren inguruan soldaduak luze-zabal etzanda zeuden, lotan; denak tenientea izan ezik, eserita baitzegoen burua belaun gainean makurtuta.

Andersenek eskuineko gizon garai eta meheak errebolberrak altxatu eta katuari sakatu zion. Tximist itsugarri, bat-bateko bat; eztanda gorgarri bat.

Andersenek zaintzailea ikusi zuen eskuak altxatzen eta gero lurrean esertzen sabelari eusten ziola. Norabide orotatik, txinpart zirtakari laburrek distiratu egin zuten burrunba zulagarri batean txandakatuz. Tenientea zutik jarri zen eta suaren gainean erori zen zuzen-zuzenean. Soldaduen giza irudi grisak mamu gisa mugitzen ziren norabide guztietan, eskuak altxatuz eta lurrera eroriz eta lur beltzean iraulkatuz. Ofizial gaztea korrika igaro zen Andersonengandik hurbil, eskuei eraginez txori arraro baten moduan. Andersenek, beste gauza batean pentsatuz egongo balitz bezala, makila



altxatu zuen. Ofizialaren buruaren aurka jo zuen bere indar guztiekin, zeinak kolpe bakoitza hartzen baitzuen zarata sor, lazgarri batez. Ofizialak balantza egin zuen zirkulu bat eginez, sastraka batekin egin zuen estropezu eta bigarren kolpea jasotakoan lurrean eserita geratu zen, burua bi eskuekin babestuz, mutikoek egiten duten bezala. Norbait etorri zen eta errebolberra desarratu zuen Andersonen beraren eskuarekin izan balitz bezala. Ofizialaren gorputza mordoilo egin zen; gero, gorputza nekez luzatu eta buruz behera erori zen lurrera. Haren hankak une batez bihurrika aritu ziren; gero, zaratarik gabe kuzkurtu egin ziren.

Tiro-hotsak amaituak ziren. Begitarte zuriko giza irudi beltzak, mamu-itxurako gris-kolorekoak iluntasunean, soldaduen gorpuen artetik mugitzen ziren, haien arma eta munizioen jabetuz.

Andersenek den-dena zekusan begi hotz eta erneekin. Bukatu zuenean, sua zegoen aldera jo zuen eta, soldaduaren hanka erreei helduz, gorpua sugarretatik aldentzen saiatu zen. Baina astunegia zen harentzat eta amore eman behar izan zuen.

---

Andersen geldi eserita zegoen udaletxeko harmailadian eta gogoeta egiten zuen. Gogoeta

egiten zuen nola ote zen posible berak, Gabriel Andersonek, bere betaurrekoekin, bere makilarekin, bere soingainekoarekin eta bere olerkiekin, hamabost gizoni gezur esan eta ziria sartzea. Izugarria zela uste zuen, baina bere bihotzean ez zegoen ez urrikirik ez lotsarik ez bihotz-zimikorik. Aske jarriko balute, bazekien-ze, bera, Gabriel Andersen, bere betaurrekoekin eta bere olerkiekin, zuzen-zuzenean joango litzatekeela berriro gauza bera egitera.

Bere burua arakutzen saiatu zen bere arimaren baitan zer ari zen gertatzen ikusteko. Baina haren pentsamenduak traketsak eta nahasgarriak ziren. Arrazoiren batengatik berarentzat mingarriagoa zen elur gainean luze-zabal etzandako hiru gizonengan pentsatzea, jada ez zekusaten euren begi hilekin ilargi urrunaren biribil hurbilera begiratuz, eraildako ofizialarengan pentsatzea baino, zeinari bi kolpe ikaragarri eman baitzizkion buruan. Ez zuen beraren heriotzan pentsatzen. Aspaldi-aspaldian gauza guztiakin bukatua zuela iruditzen zitzaion. Zerbait hila zitzaion, joana zitzaion eta barrutik hutsik utzia zuen, eta hartan pentsatu beharra zeukan.

Eta soin aldetik heldu ziotenean eta jaiki eta baratzean barrena eraman zutenean –non azalen azaburu lehorrak agertzen hasiak baitziren–, ez zen gogoeta bakar bat ere koordinatzeko gauza izan.

Bidera eraman eta burdin-hesi baten aldamenean jarri zuten, burdinazko barra haietako bati bizkarra emanda. Bere betaurrekoak egokitu, eskuak haren atzean jarri eta zutik irauin zuen burua albo baterantz arinki makurturik.

Azken unean beraren aurrera begiratu zuen eta errifleen kanoiak ikusi zituen bere burura, bere bularrera, bere sabelaldera apuntatuz, bai eta ezpain dardartiekiko begitarte zurbilak ere. Argi eta garbi ikusi zuen, bere bekokira apuntatzen zuten kanoietako bat bat-batean nola jaisten zen.

Zerbait bitxi eta ulergaitza, jada mundu honetakoa izango ez balitz bezala, igaro zen Andersenengogotik. Lerdendu eta bere gorputz txikikoa luzatu zuen, eta burua atzerantz bota zuen urguilu hutsezko imintzio batean. Garbitasun-, indar- eta harrotasun-sentsazio batek bete zuen bere arima, eta gauza guztiak –eguzkia eta zerua eta jendea eta landak eta heriotza– iruditu zitzaizkion hutsal, urrun eta alferrikako.

Balek bularraldean, ezkerreko begian, sabelean jo zuten, eta leporaino botoitutako haren soingaineko garbia zeharkatu zuten. Haren betaurrekoak airetik atera ziren mila puskatan. Oihu bat jaurti zuen; haren gorputzak bira egin zuen eta gelditzen zitzaion begiarekin –zabal-zabalik berau– burdin-hesiaren pika haietako baten gainean erori zen ahuspez. Aurrerantz luzaturik

zeuzkan bere eskuekin arakatu zuen lurra, zerbaiti heldu nahian bezala.

Zurbilaren zurbilaz berde zegoen ofiziala harengana joan zen korrika batean, eta ezein sentimendurik agerian utzi gabe, errebolberra haren garondoan jarri eta bi bider egin zuen tiro. Andersen lur gainean luze egin zen.

Soldaduak azkar-azkar abiatu ziren. Baina Andersen hantxe gelditu zen, lur gainean luze-zabal botata. Haren ezker-eskuineko hatz erakusleak beste hamar bat segundoz jarraitu zuen dar-dar.